

# **ESTOLDERIAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA. 2020. URTEA**

## **I. OINARRIA ETA IZAERA**

Lehen artikulua.- Konstituzioaren 133.2 eta 142. art.etan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 106. art.ak emandako ahalmenak erabiliz eta Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, Udalak Zerga Ordenantza honek eraentzen duen Eztoldengatiko tasa ezartzen du; Zerga Ordenantzen arauak arestian aipatu Foru Arauan oharmandakoari erantzungo diote.

## **II. ZERGA EGITATEA**

2. artikulua.1- Tasaren zerga egitatea osatzen dute:

a) Udal-etzolda sarera hartunea baimentzeko beharrezko baldintzak ematen diren ala ez begiztatzeko helburua duten udal jarduera tekniko eta administratiboek.

b) Iraizkin, euri, ur beltz eta hondakin uren hustuketa zerbitzuak ematea udal-etzolda sarearen bitartez eta ur horien tratamendua uren arazketarako

2.- Ez dute tasarik izango lurreratutako finkek, aurrizko izendatutakoak edo orube edo lur izaera dutenak.

## **III. SUBJEKTU PASIBOA**

3. artikulua.- 1.- Zergadun subjektu pasiboak Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak dira:

a) Sarera hartune lizentziaren emakida denean: finkaren jabari gaiaren jabea, gozameduna edo titularra.

b) Aurreko artikulua 1. b) zenbakiaren zerbitzua ematen denean, aipatu zerbitzuen onurak jasotzen dituzten udal mugarteko finken betetzaileak edo erabiltzaileak euren titulua edozein izanik ere: jabeak, gozamedunak, geladunak edo errentariak baita prekarioak ere.

2.- Beti ere, etxebizitza edo lokalen betetzaile edo erabiltzailearen ordeko subjektu pasibotzat har daiteke higiezin horietako jabea eta haiek, hala denean, zerbitzuaren onuradunen gainean ordaindutako kuotak jasanarazi ahal izango dituzte.

#### **IV. ERANTZULEAK**

4. artikulua.- 1.- Subjektu pasiboaren zerga-betebeharrei solidario gisa erantzungo diete Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 41. art.ak aipatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek

2.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan aipatzen diren pertsona edo erakundeak arduradun subsidiarioak izango dira.

#### **V. ZERGA KUOTA**

5. artikulua.- 1.- Estolda sarera hartunea egin ahal izateko lizentzia edo baimena emateari dagokion zerga kuota behin bakarrik eskatuko da eta Eraikuntza, Instalazio eta lanei buruzko zerga arautzen duen Zerga Ordenantzan ezarritakoari lotuko zaio.

2.- Estolda eta arazketa zerbitzuak emateagatik eskatuko den zerga kuota finkan erabilitako metro kubikotan neurtutako ur kopuruaren arabera zehaztuko da.

#### **Horretarako honako TARIFAK aplikatuko dira:**

A) Tarifa orokorra:

Kontsumitutako metro kubiko bakoitzeko                    **0,161 euro**

B) Tarifa murriztuak zenbait taldeentzat:

1. Lanbide arteko gutxieneko soldata bider 1,3 baino gutxiagoko urteko diru-sarrerak jasotzen dituzten zergadunei aplikatu ahal zaien tarifa. Egoera hori urtero egiaztatu beharko dute, urtarrilean, eta dagozkion egiaztagiriak erantsi beharko dituzte: 0 euro.

2. Tarifa murriztua, indarrean dagoen legeriaren arabera familia ugariaren titularrak diren subjektu pasiboari aplikatu beharrekoa, familia-errenta estandarizatua 40.000 euro edo gutxiago denean. Tarifaren murrizpen hori familia ugariaren ohiko etxebizitzari baino ez zaio aplikatuko; hartara, familiako kide guztiak higiezin horretan errolatuta egon beharko dira.

Subjektu pasiboek baldintza eta betekizunetan gertatzen diren aldaketen berri eman beharko dute murrizpen hori jaso ahal izateko. Administrazioak ofizioz

egiaztatu ahalko du betekizunak betetzen direla, eta subjektu pasiboak tarifa murrizteko eskubidea duela frogatzeko behar diren agiri guztiak aurkezteko agindu ahal dio.

Zerga kuota ateratzeko, tarifa orokorrari familia ugariaren familia-errenta estandarizatuaren arabera dagokion murrizpen portzentajea aplikatuko zaio, koadro honen eredura:

<b>Familia-errenta estandarizatu</b>	<b>Murrizpenaren portzentajea</b>
10.000 euroraino	% 90
10.001 eurotik 20.000 euroraino	% 50
20.001 eurotik 30.000 euroraino	% 25
30.001 eurotik 40.000 euroraino	% 10

### **FAMILIA ERRENTA ESTANDARIZATUAREN KALKULUA**

Familia-errenta (zerga oinarri orokorra gehi PFEZaren aurrezpenaren zerga-oinarria) familia-unitatearen ekibalentzia koefizientearekin zatitzearen emaitza izango da (koefiziente egokiak batuko dira):

<b>Subjektu pasiboa</b>	<b>Koefizientea</b>
Ezkontidearekin edo izatezko bikotekidearekin	1,5
Ezkontiderik edo izatezko bikotekiderik gabe	1,3
Genero indarkeriaren biktima	1,3
Familia-unitateko ume bakoitza	0,3
Familia-unitateko kideetakoren batek desgaitasunik badauka: =>% 33	0,3

Murrizpen horren aplikazioa subjektu pasiboak eskatu beharko du eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Tarifa murrizteko eskaera-idazkia.
- Familia ugariaren titulua, Bizkaiko Foru Aldundiak luzatutakoa.
- Familia ugariko kideek Ogasunean aurkeztutako azken errenta aitopenenaren fotokopia. Ez badute errenta aitopena egin beharrik, Ogasunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, baita

erakunde berak egindako dokumentua ere, errentaren datu fiskalak jasotzen dituena.

3. Bi urtez aplika daitekeen tarifa murriztua, jardueraren edo, hala badagokio, irekitzearen aurretiazko jakinarazpena egiten den egunetik zenbatzen hasita, ezarpen berriko enpresa jarduerak edo jarduera komertzialak hasten dituzten zergadunei, 225.000 euro baino gutxiagoko katastro-balioa duten lokaletan, eta ekintzaile berriek bultzatutakoak. Getxolanek jarduera horiek gainbegiratuko ditu eta horren aldeko aurretiazko txostena egin beharko du. Lehenengo urtean, % 75eko murrizketa aplikatuko da dagokion tarifa orokorraren gainean. Bigarren urtean, % 50eko murrizketa aplikatuko da dagokion tarifa orokorraren gainean.

Ekintzaile berrien tarifa murriztua aplikatzeko, interesdunak beren-beregi eskatu beharko du eta bere izaera egiaztatu beharko du Getxolanek, hala badagokio, eskatutako dokumentazioa aurkeztuz.

4. Tarifa murriztuaK aplikatzeko, tasaren subjektu pasibo dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du eskatzaileak (Ur Partzuergoarekin egindako kontratuaren kopia edo titular gisa ageri den ordainagiri baten kopia).

5. Tarifa-murrizpen bat baino gehiago aplikatzeko betekizunak betetzen direnean, subjektu pasiboarentzat onuragarriena dena baino ez da aplikatuko.

3.- Estolderiagatiko hiru hilabeteroko gutxieneko fakturazioa honelaxe egingo da:

Etxebizitzak	20,00 m <sup>3</sup>
Merkataritza-lokalak	25,00 m <sup>3</sup>
Industriak, Tabernak eta Antzekoak	65,00 m <sup>3</sup>

## **VI. SORTZAPENA**

6. artikulua. - Tasa sortu eta zergak ordaintzeko betebeharra izango da tasaren zerga egitatea osatzen duen jarduera hasten denean; jarduera hasitakotzat hartuko dugu:

a) Hartune lizentziaren eskabide egokia ematen den egunean baldin eta subjektu pasiboak berariaz azaltzen duenean

b) Udal-etzolda sarera hartune eragingarria ematen den unean. Mota horretan, tasaren sortzapena hartune lizentzia lortzearekin edo ez lortzearekin zerikusirik izan gabe egingo da eta etzolda sarea baimentzeko bidera daitekeen administrazio espedientearen kalterik gabe

2.- Iraizkin, euri ur, ur beltz eta hondakin uren hustuketa zerbitzuak eta ur horien arazketa nahitaezkoak dira kaleetara fatxadak dituzten Udaleko finka guztietan eta etzoldak dituzten plaza edota herri-ibaietan, sarearen eta finkaren arteko distantzia berrehun metrotik gorakoa ez den kasu guztietan; interesatuek sarera hartunea egiten ez dutenean ere tasa sortuko da.

## **VII. AITORPENA, LIKIDAZIOA ETA SARRERA**

7. artikulua. 1.- Subjektu pasiboek alta-baxen aitorpenak azalduko dituzte Tasaren subjektu pasiboen erroldan, finkaren titulartasunean aldaketa sortzen den egunetik egutegiko hurrengo hilabetearen azken egunera arteko epearen barnean. Azken aitorpen horiek alta-baxen aitorpenak aurkezteko epea bukatu ondoren egiten den lehen likidaziotik aurrera ekarriko dituzte ondoreak. Hasieran, erroldan sartzea norberaren arioz egingo da sarera hartunea egiteko lizentzia eman ondorencio.

2.- Tasa hori dela eta eska daitezkeen kuotak ur hornidura eta kontsumoaren ordainagirien epealdi eta epe berdinetan likidatu eta bilduko dira.

3.- Hartune lizentziaren kasuan zergadunak eskabide egokia egingo du eta Udal honetako zerga bilketa zerbitzuek kasuan kasuko likidazioa egingo dute lizentzia eman ondoren; likidazioaren berri jasoko du zergadunak Zergabilketari buruzko Foru Araudiak aipatzen duen era eta epeetan zuzenean sartzeko.

## **VIII. AZKEN XEDAPENA**

Ordenantzaren oraingo testua 1989ko irailaren 2ko Udalaren Osoko Bilkurak onartu zuen eta 1991ko abenduaren 20ko, 1992ko azaroaren 27ko, 1993ko azaroaren 26ko, 1995eko azaroaren 24ko, 1996ko apirilaren 29ko, 1997ko urtarrilaren 31ko, 1997ko abenduaren 19ko eta 1998ko abenduaren 18ko, 2001eko irailaren 28ko, 2003ko azaroaren 28an, 2004ko azaroaren 26an, 2005eko azaroaren 25eko, 2009ko maiatzaren 29an, 2016ko apirilaren 27an, 2018ko urtarrilaren 31an, osoko bilkuren erabakiz aldarazia izan zen; Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta bere argitalpenaren ondoko egunean indarrean sartuko da, momentu horretatik aurrera aplikatuta eta indarrean iraungo du bere aldarazpena edo indargabeketa erabaki arte.